

DIRU-SARRERAK

Gure enpresak izango dituen oinarritzko diru-sarrerak bazkide bihurtzen diren pertsonengandik etorriko dira. Hauek hainbat aukera izango dituzte esku artean: Batetik, bazkide izateko aukera dute hilabetean 5€ ordainduz edo urtean 40€ ordainduz. Argi dago, urtean ordaindu beharreko kuota merkeagoa ateratzen dela lehenengo kasuan baino, bestela 60€ urtean ateratzen baitira. Bazkide bihurtzen diren hauek kopuru hau hasieratik ordaintzen dutenez proiektua sustengatuko dute, eta ordainetan, egindako erosketak doan jasoko dituzte etxean.

Beste aldetik, bazkide ez direnak ere aukera izango dute gure online dendan erosteko, 1,99€ ordainduz gure zerbitzuaren bitartez erositako produktu bat etxera iristeko. Ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira, produktua erosterako momentuan ordainduko kopuruak.

Honetaz gain, proiektuan parte hartuko duten Zumaiako merkatariek -gutxi gora-behera 55 direnak-, salmentetako diru-kopuruaren ehuneko bat ordaindu beharko dute online-dendan eta gure komunikazio kanpainatan presentzia izan eta haien produktuak etxeetara eramateagatik.

Idea bat egin dezagun, 70 enpresa daude *Gertu* elkartean barnean, eta horietatik 55ekin egingo dugu lan. Gure proiektuaren bazkide bilakatzeko sarrera doan izango dute; horrela gehiago animatuko baitira proiektuan parte hartzera. Enpresen %25-50 gutxi gorabehera internetetik salduko dutelakoan gaude, eta guk, ehuneko horren laurdena jasoko dugu ordainetan, hau da, %25 saltzen badugu gure webgunaren bitartez, denda horren guztizko salmenten %6,25a jasoko dugu.

Zumaia komunitate moduan hartu eta honen mesederako sortuko den proiektua izanik, crowdfunding kanpaina bat ere jarriko dugu abian proiektua martxa jartzeko unean beharrezko funtsak bildu ahal izateko. Diru-iturri inplikatzailerik interesgarria izateaz gain, herrian proiektuarekiko dagoen interesa neurtzen lagunduko digu, eta aldi

berean, internet bidez honelako eragiketak burutzeko herritarrek duten gaitasuna frogatu ahal izango dugu.

Azkenik, lehen esan bezala komunitatearentzat mesedegarria izango den proiektu bat martxan jarriko dugunez, diru laguntzak ere jasotzea espero dugu hainbat iturri ezberdinetik. Urola Kostako Udal Elkarteak eskaintzen duen diru-laguntzaz eta ahal izanez gero Eusko Jaurlaritzak ekintzaile gazte berriei ematen dienaz baliatzen saiatuko gara. Kultura ere sustatuko duen proiektu bat denez kultura eta aisialdi alorrean lan egiten duten elkarten jarduera diruz laguntzen duten partidak ere badirela ikusi dugu, eta hauek lortzen ere saiatuko gara. Adibide moduan, honako estekan topatu dugu Urola-Kostako Udal Elkarteak eskeintzen duen laguntzaren inguruko informazioa:

<http://www.urolakosta.eus/eu/web/urolakosta-agentzia/enpresa-sortzeko-laguntza>

Hauei esker egin beharreko inbertsioaren zati handi bat lortzera iritsiko ginateke, beharrezko ditugun furgoneta eta lokala erostea ahalbidetuz. Gutxi gora-behera proiektua martxan jartzeko 50.000€ behar izango ditugula kalkulatu dugu aurrerago zehaztuko dugun moduan.